

## Miren Jaio

# «Museotik kanpo ere badago artea»

Hemen ez du balio “izan zirelako gara” gisako esaera eginak. Hemen aurrekoek egindakoa bazter utzi behar da, lehendik datorren haria eten, beste bat non edo nondik sortzen asmatu, eta egin. Arte garaikidea da.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Zurekin hitz egin nuen egunean, albistea egunkarian: Baionako Bonnat museoa hiru urtez itxiko da. Aste batzuk lehenago, Txillida Leku zarratu zuten. Geroago, San Telmo berria inauguratu zuten. Guggenheim beti hor da. Artium bezala. Altzutzako Jorge Oteiza bezala... Arte Eder museoak... Zer da museo zarata hau?

Museo zarataz ari zara, eta egia da azken bi hamarkadetan arte garaikideko museoena fenomeno zaratatsua bihurtu dela. Dena dela, fenomeno globala izan da hori, nahiz eta hemen, Guggenheim museoa bertan ireki zelako, oihartzun handiagoa eta zentzu bereziagoa izan. Fenomeno globala, diot, munduko leku guztietan kultur politika berbera egin delako, hau da, arte garaikideko zentro eta museoak modu ia obsesiboan ireki dira. Orain daukagunaz, zer esan? Bada, erein genuela, eta orain uzta biltzen ari garela... Ekonomi krisiak agerian utzi ditu kultur politiken apustu horien kontraesanak. Hazkundean oinarritutako ekonomi ereduaren krisia dugu oraingoa, eta arte sistema ere horren parte da. Joan den hamabost urte honetan kultur ekipamenduak hainbat ugartu dira, desorekak sortu dituzte, eta naturala da kultur sistema desorekatu horri ere krisia etortzea, ekonomiaren beste esparru guztiei gertatzen zaien bezala. Eta murrizketak ekonomian, eta murrizketak artean, kultur ekipamendu eta museoetan. Baina diozun “museo zarata” horren erroak sakonagoak dira eta lehendik datoz. Orain dela lau hamarkadatik hona daukagun kontsumo gizarte kapitalista, kapitalismo aurreratua edo Ford osteko gizartearen ikurra identifikatzen jardun zuen Fredric Jameson teorilariak eta, berak, “kultur

eztanda” izena eman zion gizarte honi. Dakigunez, gizarte eredu horri justifikazio ideologikoa emango dion mugimendu filosofikoa postmodernitatea da. Eta mugimendu honen ezaugarri nagusia zentzu historikoaren galera izango da.

**Arte garaikideaz ari, museoak eta beste... Arte garaikidearen museo guztiak zaku berean sartze-koak dira?**

Galdera hori erantzuteko lehenago arte garaikidearen museo bat zer den argitu beharko dugu. Horrelako museo bat artelaren bitartez orainaren, iraganaren eta etorkizunaren irakur-

## Nortasun agiria

Miren Jaio (Bermeo, 1968). Arte kritikaria. Artearen Historia lizentziaduna da eta Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Garaikidearen Historia irakatsitakoa. Arte kritika egina da hainbat hedabidetan eta kolaborazio pila idatzitakoa katalogo eta argitalpenetan. Gogoeta interesgarriak egina da Guggenheim efektuari buruz eta praktika artistikoaz, identitateaz eta beste zenbait gairen inguruan. Periferiak 07 (2007) eta Talka egin/Talking! (2008) programetan lanean ibilitakoa da Oier Etxeberriarekin batera. Gaur egun, Bilbon ari da, tesia egiten, eta *Bulegoa zenbaki barik* izenekoan, artearen gaineko ikerketa, eztabaida eta hausnarketan, Beatriz Cavia, Isabel Naveran eta Leire Vergarekin batera. [www.bulegoa.org](http://www.bulegoa.org)





keta historikoa egiten duen instituzioa da. Eta irakurketa historikoa baldin bada, derrigorrez kritikoa izan behar du. Zerk ematen dio kritikotasuna arte garaikidearen museo bati? Alde batetik argi dago bildutako artelanek sortzen duten irakurketa direla kritikotasun horren erantzule. Baina ez eurak bakarrik, izan ere, nahitaez kritikoak dira arte politikoz beteta dauden museoak? Ez derrigorrez. Museoak ez dira edukiontzi hutsak, kritikotasuna erakutsi behar dute, ez bakarrik edukietan –bildutako artelanetan, alegia–, egiteko moduetan ere bai, dela kanpokoari begira, dela barrukoari begira... Museoak kritikoa izan behar duela esaten ari naiz, are gehiago zentzu historikoaren galaraz hitz egiten den momentu honetan. Dena

## 1929, gaur

“Arte garaikidearen lehen museoa 1929an sortu zela esaten da. MoMA museoa, alegia. Eta sortu orduko geratu zen agerian arte garaikidearen museoak bere barnean daukan kontraesana: museoa baldin bada, ezin da garaikidea izan. Gertrude Steinek MoMAko zuzendariari esan zion moduan: ‘Museoa da, ala garaikidea da, baina ezin da biak batera izan’. 90eko hamarkadatik hona, arte garaikidearen museoak nagusitu dira, eta Artea ez beste zer edo zer erakusten duten museoak ere –naturzientziakoak, historiakoak, akuarioak...–, ordu arte bezalako museoak izateari utzi eta aisialdi industriar sartuko dira: berriztatu egingo dira, marketin estrategiak erabiltzen hasiko dira. Eta hori da gaur egun daukaguna”.

den, museoa ez da arte munduan dagoen arte instituzio bakarra.

### Zer esan nahi duzu?

Unibertsitatek hasi eta galerietaraino, produkzio kate horretan elementu eta instituzio asko daude: artista izan nahi duen haren formazioetik hasi eta artelan bilduma egiten duen haren etxean eseki arte, bide handia dago. Arteleku izan zen adibide. Imanol Murua diputatu zen garaian sortu zen, 1986an. Muruak Nestor Basterretxearen aholkuari jarraituz sortu zuen Arteleku. Nik esango nuke garai hartan ere bazutela arteak duen balio sinbolikoaren kontzientzia, baina ez hainbeste balio sinboliko hori ekonomikoki edo politikoki kapitalizatzeke dauden moduen kontzientziarik. “Itxi horrek artistak euron kontura!”, izan zen kontsigna, eta hogeitaz urtean nolabaiteko askatasuna izan zuen Artelekuk, artea egiteko, eta artea egiteko erak aztertzeke.

### Zer dute ikustekorik arte garaikideak eta kultur politikak?

Kultur politikak betidanik egon dira hor. Dena den, gaur ulertzen dugun zentzuarekin XX. mende hasierako hamarkadetan hasi ziren indarrean jartzen. Hor izango dugu Sobiet Batasunaren kasua, non artista abangoardistek euren lana proiektu politikoaren zerbitzura jarri zuten. Helburua? Artea eta kultura demokratizatzea, jende guztiari aukera ematea, ordura arte aberats eta eliteen eskura zegoen

arte sozializatzea. Ordutik gauzak asko aldatu dira. Nahiko adierazgarria egiten zait urte berean, 1982an, batera agertzea bi testu. Alde batetik, UNESCOk ateratako “kultur politikaren” lehenengo definizio adostua eta, bestetik, Guattarik “Kultura, kontzeptu erreazionarioa” izeneko hitzaldia. Abangoardistek ordu arte kontzeptu iraultzailetzat zeukatena, Guattarik erreazionarioa zela esan zuen, kontrako! Lehen esan dudanez, Guattariren arabera arteak botere plusbalioa du, denok nahi dugu hura amortizatu, errentagarri egin eta geureganatu. Kultur politikariek laster deskubrituko dute botere plusbalio hori eta berehalaxe ekingo diote artea eta kultura ustiatzeari. Politika kudeatzaileen esku dago kultur politikak diseinatzea, eta horrela izan behar du. Komeni da, hala ere, Muruak egin zuen moduan, arte aholkulari egokiak izatea, eta ez ondoko publizistari galdetzea. Zoritxarrez, askotan ez da horrela gertatzen. Politikariek epe laburreko etekin politikoari ematen diote lehentasuna, eta hortik ez dator onik. Ez gara konturatzen mamu erraldoiek arte sisteman sortzen duten desorekaz.

### Sistema desorekatu du Guggenheimek?

Berak baino gehiago, beraren itzalak. Izugarriko efektu mediatikoa izan du. 90eko kultur eztrandak, besteak beste, kultur paradigma berria ekarri zuen, hiri ereduetaraino hedatu zen, eta hor, arte garaikideak bere lekua izan zuen. Adibiderik argiena Guggenheim efektua da. Tira, “Guggenheim efektua” esaten dugu gurean, baina, atzerrian, “Bilbao effect” duzu... Oraindik orain irakurri dudanez, Ingalaterrako Margate herriak –glamourrik gabeko halako Zarautz bat–, Guggenheim efektua kopiatu nahi omen du! Hortaz, gurean ez ezik, kanpoan ere arte garaikidearen museoak bata bestearen atzetik ireki dira, efektu biderkatzailea izan du Guggenheimek, eta monolaborantza ekarri, baina artean museoak ez beste ekipamendu asko daude, orekari eusten diotenak.

### Corte Inglés-era

“Artearen definizio berria ezarri zuen abangoardiak: aurrekoarekin apurto behar du, derrigorrez, eta ordena, status quoa eta bere burua ere –instituzioa den neurrian–, kuestionatu behar ditu. Arte garaikidearen museoek obligazio horietan dituzte, batzuek betetzen ez badituzte ere. Museoak instituzioak dira, eta ez da erraza Londresko Tate-k, New Yorkeko MoMa-k edo Madrileko Reina Sofiak, adibidez, euren burua kuestionatzea! Baina, berez, egin beharko lukete. Arte instituzioak, funtzionalak izateko, disfuntzionalak izan behar dira, arteak egiten dituen hausnarketa kritikoak islatu behar dituzte, bestela Corte Inglés-era goaz!”.

Etxean ez gara museo zale amorratuak, baina ikusiak ditugu Gasteizen Arte Eder Museoa eta Artium, eta Bilbon Guggenheim eta Arte Ederretakoa. Bilbon, jendea ikusi genuen museoan. Gasteizekoetan, gu beste inor ez... Hiri guztiek nahi beren museo, ordea! Dirua alferrik botatzea da hori?

Euskal Herria txikia da eta egia da erakunde politikoak bata bestearen gainean jartzea dela eta (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza), gurean hiru kultur politika gainjarri direla, askotan euren artean inolako elkarrikeria eta koordinazio barik. Horrek ekipamenduen erreplikapena eta mimesia sortu du. Bai gurean, eta bai beste leku askotan ere. Hiri batean eta beste museoak irekitzea, bakoitzaren beharriaz aztertu barik, ez da ona. Gure herrian, bakoitzak bere kultur ekipamenduak ditu buruan, askotan besterenak kontuan hartu gabe, eta horrek oso antzeko diren ekipamenduak ekarri ditu, gure neurri eta beharrik zein diren pentsatu gabe... Guggenheim efektua leku askotan ahalegindu dira kopiatzen, gurean eta kanpoan, baina Bilbon baino ez du izan benetako eragina, ustekabeak behin baino ez duelako funtzionatzen. Ez dakit nik konponbidea zein izango den. Denok mahai baten inguruan jesartzeak asko lagunduko luke: elkarrikeria, batak bestearekin hitz egitea, bakoitzak bere lehentasunak eta arazoak planteatzea... Herri txikia garenez denok mahaiaren inguruan jesartzea gauza erraza dela uste dut. Horretarako borondatea behar da.

Eta ikusleak askotan egiten duen galdera? “Eta hori artea da?”, margolan zuriari begira, erdian marra urdin-urdin bat duena...

Klixeko edo leku komun horren ordaina beste klixeko bat da: “Komertziala den edozein arte lan ezin da kalitatezkoa izan”. Bi klixeen jatorria abangoardia historikoek mahai gainean jarri zuten konpondu gabeko tentsio edo antinomia jakin batetik dator: abangoardia utopistak bere baitan promesa zekarren, arte



(1911-1991)

*Aita Lino Akesolo Olivares*

*Euskaltzale bizkaitarrak*

100. urteurrenean

GAU ILLUNA (S. Juan de la Cruz)

“Gau illun batez barrua maitasun-antsiz sutan nebala, zorioneko ordua! urten dot inok ez nenkusalá, nire etxea baketan zala.”



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



## AZKEN HITZA

### Hausteko zabaldu

“Maistra guztien zereginak hauxe izan behar du: saiakuntzak egiteko eta arauak eta ohiturak hausteko espiritua zabaltzea”. Juliana de Agirrezabala, 1912an Bilboko Solokoetxeko Ospitalean kokatu zen Bizkaiko Maistren Eskolaren sorreraren bultzatzailea, lankideei eta ikasleei egindako hitzaldi batean. (Bulegoa z/b-en “OHO” ikerketa-ildotik).

berria denontzako izan behar duela, hau da, artearen demokratizazioa, baina, aldi berean, artea benetako artea izateko –arte berria, konforme ez dagoena, esperimental, dagoenarekin kritikoa, erreboltaria–, autonomoa izan behar du, eta horren ondorioz ez-ulertua eta gaizki ulertua izatera kondenatuta dago. Abangoardia historikoak eta gero, jarrerak muturretara jo zuten: jarrera alexandriarrak –elitistak–, jarrera populistak, arteari mesfidantzaz begiratzen diotenak –“hara hor nik

ulertzen ez dudana gauza bat. Ni gozatzeko eginda dago baina ez dut ulertzen. Tontotzat tratatzen naute”–. Artea ezagutza eta esperimentaziorako esparru espezifikoak da, ingeniari-ritza genetikoak ezagutza eta esperimentaziorako esparru espezifikoak den moduan. Bere lengoia eta kodeak oso espezifikoak dira.

Arte ekosisteman, erakunde batzuk handiak, beste batzuk txikiak, denon artean osatzen duzue hura. Tartean zarete zuek, “Bulegoa z/b”.

Ez gara hasi zaharrak, azaroan hasi ginen, eta oraindik ez garela kokatu esango nuke. Periferikoak gara, gure egoitza ez da erakusketa aretoa ere, hitzaldiak egiten ditugu, performance-ak, proiektzioak... Lan iragankorrak dira, nahi baduzu. Gureak ez du museoak lezakeen ikusgarritasunik, horregatik diot instituzio txiki eta periferikoak garela. Esfera testuinguruan lan egiten dugu, gure solaskideak, bezeroak, aholkulariak... arte mundukoak dira denak, hala artistak nola bisitariak. Baita Solokoetxe auzoko jendea ere, bertan gaude eta. Egitura txikia gara, baina sare baten barruan gaude, eta zenbait lan gauzatzeko gune aproposa izan daiteke gurea. Ekosistemaren parte gara, behartuta gaudelako, eta halaxe nahi dugulako. ■

## Museoak

“Nolabait, gaur egun bizi dugun museo ugaritze hau 90eko hamarkadan sortu zen globalizazio fenomenoari lotuta dago: ekonomia globalizatu zen, turismo eta aisialdi kontsumo globala, eta, horiekin batera, arte garaikidearen hazkundera. Arte merkatuak eztanda egin zuen, eta vangogh-ak eta picassoak ordu arte ez bezalako prezio handiangoan saltzen hasi ziren. Baina Van Gogh eta Picasso artista hilak dira, haien lanak urriak... eta arte garaikideak bizirik eta lanean dauden artistak hartzen ditu kontuan. Hauen merkatuak eztanda egin zuen, prezioek goia jo zuten, eta merkaturak bera ere globalizatu zenez, arte garaikidearen boima gertatu zen, erakuslehoena barne, eta, esaterako, biurtekoak egiten hasi ziren han eta hemen. Lehen, Veneziakoa, Sao Paulokoa eta horiek ziren ezagunak, baina eztrandaz gero, leku askotan hasiko dira biurtekoak egiten”.

**argia.com** Arteaz, museoaz eta beste hainbat kontuz luze gure webgunean.

Descenso de Cañones/Espeleología Arroila Jaitsierak/Espeleología  
 Puenting/Éscalada/Raquetas de nieve Zubi saltoa/Eskalada/Elur erraketak  
 Cursos técnicos/Viajes de aventura Ikastaro teknikoak/Abentura bidaiak  
 y mucho mas... eta askoz gehiago...

**www.inguruabentura.com**  
**info@inguruabentura.com**

**INGURU ABENTURA**

**Tel: 635 748 948**